

zako irudi batean aurkitua. San Antonio Paduakoa Haurra besoetan duela eta liburu batean eserita irudikatzen du (irud. 26). Uso itxurako Izipiritu Santuak inspiraturik liburu batean idazteko prest aurkitzen den San Pedro Alcántara-koaren irudi baten kidekoa da (irud. 28). Azkenengo honi Azcáratek XVIII. mendeko eskultura bikaina deritzo, «Pedro de Menaren ereduak gogora dakartzana»⁶⁴. Harrigarria da jarrerari eta aurpegi makalari dagokienez Francisco Salzilloren Ciezako (Murcia) santu berberarekin duen antza⁶⁵. Honen aita eta maisua, Vicente Nicolás Salzillo, napolitarra zen, Santa Maria di Capua-koa, eta XVII. mendearen azken aldean iritsi zen Murciara. Salvatierra-Aguraingo irudi biak berezko tamainakoak dira, urrezaturiko idulki joriak berdin-berdinak eta seguraski artista berak egindakoak dira. Ez dakigu artista hau Francesco di Nardo XVIII. mendeko eskultore napolitarra, belenatarako animala irudi txikietan («di forma grossolana eta manierata», Luigi Correak dioenez) lehenengo espezialista ezaguna, edo horren ahaide bat izan ote zen. Hainbat ikasle izan zituen eta bere lanak Napolesko Civico eta San Martino Museoetan eta Munich-eko Bavariar Museo Nazionalean gordetzen dira⁶⁶.

Hain zuzen ere, belen bat da daukagun italiar eskultur multzorik garrantzitsuena. XVIII. mendekoa da eta Félix Alfaro Fournier-ek eman zion Arte Ederren Museoari. Oihalez jantzitako berrogeita sei irudi txikiz osatzen da. Carlos Sáez de Tejadaren pintorearen montaiaren eszenografiko soil eta eredugarrian ikus ditzakegu.⁶⁷

Jatorri badaezpadakoa duten irudiei Italiako jatorria esleitzeko arriskuaz jabeturik, XVIII. mendeko italiar estilo nahiko sinesgarria duten bi lanekin amaiera eman diezaiokegu behin-behineko zerrenda honi. Arte Ederren Museoan San Antonio Abatearen irudi dotore bat dago (93 cm.)⁶⁸; bertan, eskuineko eskuan duen liburu bat irakurtzeko makurturik agertzen da santua. Salvatierra-Aguraingo San Juan parrokiaren, Zumalburutarren kaperaren titularra San Frantzisko adierazkor bat da⁶⁹. Kapusailak burua estaltzen diola eta eskuak habituaeren mauketan sartuta agertzen da, bere momia 1449. urtean aurkitu zen bezalaxe, eta Nikolas V.a Aita Santuaren aurrean, baina bizirik eta ibiltzeko jarreran.

1.6.- HEGO AMERIKA

Araban Erdi eta Hego Ameriketako arte kolonialeko pintura ugari -batez ere Guadalupeko Amabirjinaren irudiak- aurkitzen baditugu, eskola horietakotzat jo daitekeen eskultur multzo bakar bat ezagutzen dugu, bikaina hala ere. Desberdintasunaren karkoa pinturen garraioaren kostu txikiagoan dago, hauek urrutiko lur haieetatik biribilkatuta ekartzen baitziren. Marco Dortak jasotzen duen datuaren arabera, 1779. eta 1787. urteen artean, koadroak eta irudiak zeuzkaten berrehun kajoi baino gehiago atera ziren Guayaquil-go portutik (Ecuador).⁷⁰

Taldea Kalbario bat da, Gurutzefikatua, Amabirjina, San Juan eta Magdalenarekin, Quitoko eskolakoa beharbada. Eskola hau, Amerika kolonial hispaniarreko garrantzitsuena izan zen eskulturgintzaren alorrean. Arte Ederren Museoan gordetzen da eta ez dago bere lehenengo jatorriaren konstantziarik⁷¹. Kristo azalgabetutako enborrez egindako gurutze batean hilda agertzen da eta irudi patetikoak da, gainontzekoak baino txikiagoak, haiekiko proportziorik gabe; beste irudiek minezko jarrera konbentzional eta teatralak agertzen dituzte. Guztiz aberatsa da pulimentuzko polikromia, urrezadura eta zilarrezadura gaineko korlatuekin eta lore motibo ugariarekin. Kontraste bizia egiten du Kristoren gorputzaren egurrekin, berezko koloreaz utzita, eta paisaiatzko oinarriarekin, zinetan lurraren gora-beherak eta landaretza xehetasun guztiz irudikatu baitira.

⁶⁴ Azcárate, op. cit., Cat. Monumental, V, 1982, or. 171, irud. 70.

⁶⁵ Ikus Pardo Canalís, 1983, lam. 12.

⁶⁶ Correa, 1899, or. 325.

⁶⁷ De Begoña, Beriain, Martínez de Salinas, 1982, or. 27, irud. or. 43-1, 1-a eta 1-b.

⁶⁸ De Begoña, Beriain, Martínez de Salinas, ibidem, irud. or. 42-2.

⁶⁹ Azcárate, op. cit., Cat. Monumental, V, 1982, or. 168, irud. 119.

⁷⁰ Marco, 1973, or. 324.

⁷¹ Elorza, Cat. Monumental, III, 1971, or. 348, irud. 580 eta 581. De Begoña, Beriain, Mz. de Salinas, op. cit., 1982, irud. 27, or. 39-1; Martínez de Salinas, Vélez, op. cit., 1986, or.g

Es precisamente un belén el más importante conjunto escultórico italiano con que contamos. Data del siglo XVIII y fue donado por D. Félix Alfaro Fournier al Museo de Bellas Artes. Consta de cuarenta y seis figurillas vestidas de tela y podemos apreciarlas en conjunto en el sobrio, modélico montaje escenográfico del pintor Carlos Sáenz de Tejada⁶⁷.

Conscientes del riesgo de asignar un origen italiano a imágenes que lo tienen incierto, podemos cerrar esta relación provisional con dos cuyo estilo italiano del siglo XVIII parece bastante convincente. En el Museo de Bellas Artes hay un elegante San Antonio Abad (93 cm.)⁶⁸, inclinado para leer un libro en su mano derecha. La izquierda, perdida, se apoyaría en el cayado. En la parroquia de San Juan de Agurain / Salvatierra, el titular de la capilla de los Zumálburu es un expresivo San Francisco⁶⁹. Está representado con la cogulla cubriendo la cabeza y las manos dentro de las mangas del hábito, tal como se descubrió su momia en 1449, en presencia del papa Nicolás V, pero vivo y en actitud de marcha.

1.6.- AMÉRICA DEL SUR

A diferencia de las numerosas pinturas de arte colonial centro y sudamericano que encontramos en Álava, sobre todo representaciones de la mejicana Virgen de Guadalupe, sólo conocemos un único, aunque espléndido grupo escultórico, que puede asignarse a esas escuelas. La disparidad se explica por el menor coste del transporte de las pinturas, que viajaban enrolladas desde tan lejanas tierras. Marco Dorta recoge el dato de que entre 1779 y 1787, más de doscientos cajones con cuadros e imágenes salieron por el puerto ecuatoriano de Guayaquil⁷⁰.

El grupo es un Calvario, con el Crucificado, la Virgen, San Juan y la Magdalena, tal vez de escuela de Quito, la más floreciente en escultura de la América virreinal hispana. Se conserva en el Museo de Bellas Artes y no hay constancia de su origen primero⁷¹. Cristo aparece muerto en cruz de troncos descortezados y es una figura patética, desproporcionadamente menor que las restantes, las cuales adoptan convencionales y teatrales actitudes de dolor. Es riquísima la policromía a pulimento, con corlados sobre dorado y plateado y profusión de motivos florales. Contrasta con la madera dejada en su color del cuerpo de Cristo y la base paisajística, donde se han representado con minuciosidad los accidentes del terreno y la vegetación.

Las dos personalidades rectoras de la escultura quiteña del XVIII fueron el mestizo de apellido alavés, Bernardo de Legarda, durante la primera mitad del siglo y Manuel Chili, llamado Caspicara, a cuyo estilo se aproxima más el del grupo que estudiamos. Como en sus obras, en ésta parecen reflejarse influencias de Carmona y Salzillo, además de las predominantes sevillana y granadina de la época. La policromía, en cambio, perduró en Quito anclada en la tradición castellana de los corlados brillantes de la primera mitad del siglo XVI, que llegó pronto a América y cuyo reflejo abarrocado podemos apreciar en este Calvario del Museo.

1.7.- ESCULTURA EN MARFIL

Si bien de tamaño reducido por condicionamiento del material, las tallas de marfil no dejan de pertenecer a la escultura, se habla de pequeña escultura, aunque tradicionalmente vienen conformando un apartado de las artes menores, la eboraria. El marfil ha sido considerado desde antiguo como materia preciosa y por ello especialmente adecuada para la representación de las figuras



Fig. 27

⁶⁷ De Begoña, Beriain, Martínez de Salinas, 1982, p. 27, fig. p. 43-1, 1-a y 1-b.

⁶⁸ De Begoña, Beriain, Martínez de Salinas, ibidem, fig. p. 42-2.

⁶⁹ Azcárate, op. cit., Cat. Monumental, V, 1982, p. 168, fig. 119.

⁷⁰ Marco, 1973, p. 324.

⁷¹ Elorza, Cat. Monumental, III, 1971, p. 348, fig. 580 y 581; De Begoña, Beriain, Martínez de Salinas, op. cit., 1982, p. 27, fig. p. 39-1; Martínez de Salinas, Vélez, op. cit., 1986, s.p.